

KARKARA

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ UDAKO GUKA
+ IKUSBERA

50 URTE HERRIAN

ORIOARTUAK ETA ORIOARRAK



ANORGA TXIKI, S.L.
KRISTALDEGIA

Oria etorbidea, 4
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com
 www.cristalergiaanorgatxiki.com
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO
 943-83 00 34
 autolan13@hotmail.com

AUTO - LAN C. B.




ARDORA
 arraindegia

Eusko Gudari, 4
 © 943-09 28 17 ☎ 623 47 57 52
 ardoraarraindegia@yahoo.com
 ORIO

arkaitz taberna
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

Terniza ederrarekin giro ezin hobea

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57

azkue
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7
 AIA-ORIO
 943-83 51 86

auto Azkue

Olaskoegia z/g
 AIA-ORIO
 943-13 04 38

Carmen eta Txomin
 ARRAINDEGIA



TXOMIN ARRAINDEGIA
 Eusko Gudarien kalea, 44
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA
 Arizaga kalea
 943-83 05 37

fontana
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak



Zerbitzu teknikoa
 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoek instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO
 fontana-jul@hotmail.es
 www.fontaneria-fontana.com
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

IGLESIAS SARRAILAGILEAK



iglesiascerrajeros@yahoo.es
 www.iglesiascerrajeros.com
 Erribera kalea, 14 · ORIO
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

Joseba
 AROZTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427
 josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- ARROZTEGIA OROKORREAN



KARKARA 441

2022-UZTAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Bizi esperientzia
- 6 **Hitz tantak** Onintza Lete Arrieta
Xabier Murua
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Mikel Eizagirre
Eskuak, zura eta lixa
- 10 **Gutunak**
- 13 **Herrian galdezka**
Eragin al dizu TAO sistema berriak?
- 14 **Erreportajea** Aiora Larrañaga Solaberrieta
Orain dela mende erdi hasitako bidea
- 22 **Akuilua hartuta** Rosa eta Nadeth Arruti
2022a ere Xakobeo Urtea da
- 23 **Nire honetan** Mikel Eizagirre
Zartagina eta uda berotzen
- 24 **Ikasleak idazle** Orioko Herri Ikastola
- 27 **Erreportajea** Aritz Pardina
Denboraldia hasteko prest
- 31 **Moila bazterretik** Eli Huegun Arruabarrena
Buenrollistak
- 32 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain
'Nire eguneroko bidaia' Kostako ferrokarrilean
- 36 **Erreportajea** Mikel Eizagirre
Dibertimendua eta kultura, baleatik baleara
- 41 **Osasuna** Oihane Agote
Udan edertasun ereduari muzin
- 42 **Plazan bazan**
- 44 **Zerbitzuak**
- 45 **Agenda**
- 46 **Hasi bertsotan** Marian Lazkano

KARKARA



TOKIKOM

Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-83 15 27
karkara@karkara.eus
www.karkara.eus

Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga Solaberrieta

Erredaktore taldea

Onintza Lete Arrieta
Mikel Eizagirre
Aritz Pardina
Diseinu arduraduna
Ane Azkue

Publizitatea

Leire Martija

Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Iñaki Iturain
Rosa Arruti
Nadeth Arruti
Eli Huegun Arruabarrena
Oihane Agote

Banatzzaileak

Endika Ruiz (Orio)
Manex Dorronsoro (Orio)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-346/90
ISSN: 1132-1105
Tirada: 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO
UDALA

PUBLIZITATEA



KAIOA

 **kaioa_denda**

 **www.kaioa.es**

Gabon
TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7
943-83 06 09



%100 etxean egina
PIZZERIA
KALETA

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46



GARMENDIA

Higiezin Agentzia
Aholkularitza
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48
Ibai Ondo, 1 · ORIO
info@egarmendia.com



**KATU
HORIA**

albaritaritza klinika

ESTROPALARZ, 10
20510 ORIO
tel. 943 11 66 99

LARRIALDIAK
668891129

**ITZIAR
KIROLAK**

Eusko Gudarien kalea, 23
ORIO
943-83 31 03



KORTABERRI
arotz lanak

Imanol Illarramendi
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



Kolon Txiki
edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4
ORIO
Tel.: 943-83 00 44

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

943-53 64 94
697 23 86 56


Eusko gudariak, 35 · ORIO
(sarrera Arrantzale kaleatik)

libegarmendia@gmail.com
www.libegarmendia.com



K·U·K·U·A·R·R·I
ELEKTRIZITATEA


943-10 01 81 · 640 28 13 08
Zigordia, 52 beheka C · ZARAUZ
kukuarri@kukuarri.com



**LASTER
DESATASCOS**

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com
www.desatascos.com

 24 orduz 688 88 65 36 (Larrialdiak)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

Bizi esperientzia



AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Gure lanbideak badu xarma berezia, egunero kalean gurutzatzen ditugun pertsonak deskubritzeko aukera ematen duelako, eta, ohartzen gara nazio mailako komunikabideetan ahotsik ez duen jende askok badituela bizipen interesgarriak kontatzeke. Gertuko istorioak izaten dira, izen-abizen ezagunek sinatutakoak. Hori da hain zuzen ere, herri kazetaritzaren bereizgarria, txikitasunetik abiatuta gai globalak lantzeko ahalmena; hala, migrazioa pil-pilean dagoen garai honetan, Tiar eta El Ghailani familien bizi esperientziak interesgarriak izan zitezkeela pentsatu genuen.

Duela 50 urte erabaki zuten jatorrizko herrialdeak utzi eta etorkizun hobe baten bila abiatzea. Kasualitatez iritsi ziren Oriora, lan kontuengatik, eta hemen izan zuten familia, herriko izendegian Tiar eta El Ghailani abizenak ondare gisa utziz. Oztopo ugari gainditu behar izan zituzten bidean, posta bidez soilik komunikatu zitekeen garaian, denbora asko egon behar izan zutelako familia gabe, baina gaur egun harro daude egindako ibilbideaz.

Iritsi zirenetik hamarkada asko pasa badira ere, beren herrialdeko kulturari eta hizkuntzari bizirik eusten saiatu dira familian, eta ahalegin handia egin ondoren, herriko meskita sortzea ere lortu zuten, komunitate musulmana bildu ahal izateko. Norberaren kulturari eustea kontraesankorra iruditzen zaionik ere egon daiteke, baina aniztasuna aberasgarria izaten da herriarentzat, eta kanpotik etorri denarekin izan ditzakegun antzekotasunak desberdintasunen aurretik jartzen ditugunean, ohartu gaitezke herri berean bizitzeko esperientzia asko partekatzen ditugula. Izan ere, herri txikiek badute hiri handiek ez duten kohesio ahalmena, egunero kalean ikusten ditugun horiekin harremanak sortzeko eta bizilagunen arteko zubiak eraikitzekoa. Abdelkader Tiar eta Seddiq El Ghailanirekin zein Halima El Emrani eta Zainab Hammoudan emazteekin hitz egiten hasi orduko konturatu nintzen horretaz, gizon-emakume horiek bertan jaiotakoek bezain ongi ezagutzen dituztelako Orioko txokoak eta familiak, 50 urte hauetan herriaren garapenaren testigu eta eragile izan baitira. ■

**HERRI TXIKIEK BADUTE
HIRI HANDIEK EZ
DUTEN KOHESIO
AHALMENA**

**ASKE MAITE
ASKE BIZI!** bertako
igogailuak | ascensores

www.bertako.eus GIPUZKOA 943 903 450

Xabier Murua

TESTUA ETA ARGAZKIA: ONINTZA LETE ARRIETA

Ingeniaria da Xabier Murua (Aginaga, Usurbil, 1981) Orioko bizilaguna. Hernanin egiten du lan, igogailuen kooperatiba handi batean, eta zazpi laguneko taldea koordinatzen du Ikerketa eta Garapen saileko departamentu batean.

Egunerokoan erabiltzen duen igogailu oro arretaz begiratzen duela aitortu du.

I+G ikerketa eta garapen saileko departamentu bateko buru zara.

Bai, igogailu batek hainbat parte izaten ditu, eta zati horien arabera, I+Gn ere hainbat departamentu ditugu. Kabinak eta atea ditugu batetik, makina bestetik, txasisa bestetik, eta elektronika edo maniobra, azkenik. Neu kabinen eta ateen departamentuko kudeatzailea naiz. Beste departamentu batean egiten dute sorkuntza lana, hau da, igogailu berrien edo elementu konkretuen prototipoak egiten dituzte, eta guk egiten duguna da horiek industrializatu edo seriean fabrikatu ahal izateko planoak sartu sistema guztian, eta sistema osoa egokitu, produktua fabrikari behar den bezala ateratu dadin.

Dezenteko lana, hortaz.

Lan pixka bat edukitzen dugu, bai, kar-kar.

Lan teknikoaz gain, talde bat koordinatu behar.

Hori da, kudeaketaren parte hori ere badu nire lanak, eta ez da egun batetik bestera garatzen gaitasuna. Pertsona bakoitza desberdina da, eta... Lanketa desberdina, baina polita da.

Duela 30 urteko igogailuek eta oraingok zerikusi gutxi edukiko dute.

Ez daukate zerikusirik segurtasunari dagokionez; pixkanaka-pixkanaka, teknologian ere aurrerapenak ari dira egiten. Autoekin gertatu dena gertatu da beste sektoreetan ere: automobilgintzan erabateko aurrerapen teknologikoak egon dira, eta kompetentzia gero eta gogorragoa izan da. Sektore horretan bezala, gurean ere egokitu behar izaten dugu merkatu desberdinetan sartu ahal izateko eta horietan mantentzeko.

Etxe eta eraikinetara sartzean, arreta jarriko duzu igogailuetan, ezta?

Bai, geure etxekotik hasita! Goitik behera, ederki dakit zer daukan eta zer ez daukan. Gure sailean berez ez diogu horrenbeste erreparatzen kompetentziari, baina nik beti jarraitzen dut gertutik, bai, kar-kar. Mundu mailan aurrenak, bigarrenak, hirugarrenak... daudenek markatzen dituzte askotan tendentziak, eta haiengandik gertu egon beharra dugu.

Eta zein dira tendentziak orain?

Teknologia guztia doa digitalizatorantz: helburua da kabina ez izatea soilik gora eta behera dabilen zerbait, baizik eta elkar eragiteko aukerak eskainiko dituen tokia: pantailak edukitzea, adibidez. Mantenuari dagokionez ere, informazioa jaso nahi da *bluetooth* bidez, edo *lainotik*, makina txekatu ahal izateko urrunetik, eta aurreikusteko laster zerbaitek huts egin behar badu. Ez da erraza, baina dauden teknologiak aprobetxatu eta horretara bideratzen ari dira.

Herritarrek tamainan ere jarriko zuten arreta; lehen hiru lagun justu samar kabitzen ziren, eta orain oso zabalak dira.

Tamaina handiko kabinak badaude, baina hemen erabiltzen ditugunak zortzi pertsonarentzakoak dira, 630 kiloko muga dutenak. Oso estandarra da hori merkatuan. Tamaina baino gehiago, guk behar duguna da zerbait bereziagoa eskaintzea. Auto batetik bestera ere hala izaten da; zer ematen du berezia batek, besteak ez duena? Batek arrankea botoiarekin dauka, besteak ez dakit zer... halako xehetasunak.

Hemendik urte batzuetara nolako igogailuak edukiko ditugu?

Salto handiena teknologiarri erabat lotuta etorriko da: uste dut aukera emango duela sakeleko telefonotik igogailua eskatzeko kaletik oinez zoazen bitartean, eta zure ohiturak eta gustuak ere ezagutuko dituela. Igogailu barruan, berriz, ziur egongo direla mezu, informazio eta abarrak, pertsonalizatuta. Ukipen pantailak eta halakoak ere egongo dira. ■■■■



Eskuak, zura eta lixa

ARGAZKIA ETA TESTUA: MIKEL EIZAGIRRE

Haurren esku leunek lixaren latzari heltzen diote, zuraren kontra indarrez igurzten dute lixa, eta horra miraria: haien eskuen pare geratzen da egur bihurtutako zura, lixaren pare haien eskuak. Lantegi zahar batean sartuta, antzinako bizitzaren inguruko kondaira zahar bat baino gehiago ikasi dute gaztetxoek: zuhaitzak mozten direnetik txalupa uretara bota artean gauzatzen den prozesu misteriotsuarekin egiten dute topo; inguratzen gaituzten objektuen arteko elkarrekintza, eta interakziook beste objektuengan zein gudan eragiten dituzten adakuntzak deskubritzen dituzte. Istorio zaharrak entzutera joan eta, ez ote dira gaur egungo gizartean indarrean dirauten lege orokorren lekuko izan? ■■■





Berdin-Berdinak elkartek hamar urte bete ditu

Duela hamar urte, aniztasun funtzionala duten haur zein gazte oriotarren kirol beharrak asetzeko asmoz sortu zuten Berdin-Berdinak elkarte Alicia Figuroa Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko zuzendariaren eta Blanca Arangurenen ekimenez. Igeriketa, arrauna eta surfa lantzen dituzte elkarteko kideek. “Ez da kirol egokitua, inklusiboa baizik” azaldu du Salsamendik, hau da, ez da txapelketetan lehiatzea helburua, “gizarteratzea, kirola egitea eta parte hartzea baizik”. Hala, hainbat hitzarmen dituzte herriko kirol elkarteekin, tartean Orio Arraunketa Elkartearekin. Berdin-Berdinak taldeko arraunlariek, esaterako,



gainontzeko arraunlarien ondoan entrenatzen dute, “naturaltasun osoz, bereizketarik gabe”, nabarmendu du Salsamendik.

Izurriteak bertan behera utzi zituen bi urtez elkartek antolatzen zituen hainbat jarduera, baina normaltasuna itzultzen ari dela aitortu dute. Duela aste gutxi, esaterako, asteburu pasa egin zuten Pirinioetara eta uda honetan surf saioa egiteko asmoa ere badute. “Orioko Surf Kluba asko inplikatzeko da ekimenarekin, eta gazte pila bat etortzen dira gurekin surfa

egitera”, eskertu du Salsamendik.

Orion badira taldeetan kirola egiten duten gazteak, baina aitortu du bizpahiru urte irauten dutela batez beste, gero txapelketetan parte hartu nahi izaten dutelako. “Dena dela, gurekin aritzen diren guztiek aitortzen dute inklusioa egiten duen pertsonarentzat dela esperientziarik aberasgarriena. Izan ere, aniztasun funtzionala duten pertsonak ez dute epaitzen, desberdintasunak guk ikusten ditugu, ez haiek”, azaldu du Miren Salsamendik.

'Plaça de nou' izendatu dute Orioko Herriko Plaza

Kataluniako Vilafranca del Penedesko *castellers*-ek 2018an bederatziko solairuko giza dorrea egin zuten Orioko Herriko Plazan, eta lorpen hura gogora ekarriz, *Plaça de nou* izendatu dute. Herrialde Katalanetan ohitura dute bederatziko dorreak egiten dituzten plazak horrela izendatzeko, baina handik kanpo oso gutxi dira; Oriokoa da Euskal Herriko lehenengoa eta munduko seigarrena.



GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alaioko Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Izurriteak etendako ohiturak berreskuratuz

Ekainaren 23an, aiarrak eta oriotarrak kalera atera ziren San Joan bezpera ospatzera. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, euriak ez zituen zapuztu emanaldiak. Aian, haurrek eta gurasoen suaren bueltan dantza egin zuten, ohiturari jarraituz. Hasiera batean, saioa plazan egitea zen asmoa, baina euri zaparrada hasi zuten eta frontoian bildu ziren guztiak suaren bueltan.

Orion ere eguraldi goibelak ez zuen bertan behera utzi sorginen ikuskizuna. Herrian barrena kalejira egin beharrean, Herriko Plazara joan ziren zuzenean, eta han Sorgin Dantza egin ondoren, ikastolako aterpean egin zuten saioa. Emanaldia ikusteko gogotsu zeuden herritarrak, eta Harribileko kideek ez zuten hutsik egin, magia betetako saioa aurkeztu baitzuten jendaurrean.



Frantziako Tourra ikustera joateko irteera

EUSEBIO LASARTE

ORIO

Oñatiko lagun talde batekin Frantziako Tourra ikustera joaten gara urtero, eta aurrean irteera aste tartean egingo dugunez, autobusa osatzeko jende faltan gabiltza. Beste urteetan Oriotik taldetxo animatu izan gara txirrindularitza proba ikustera eta aurrean ere deialdia egin nahi nuke, nahi duena etorri dadin, taldea irekia baita; ez

da umorerik faltako irteeran. AP-8 autobideko Zarauzko bidesaritik, uztailearen 19an, astearte arratsaldean irten eta ostegun goizalderako itzuliko ginatete etxera, hilaren 21erako. Lan egiten duen jende askok egutegi horretara moldatu ezin duenez, zailagoa da taldea osatzea. Beraz, autobusean izena emateko deia zabaltzera natorkizue. Irteeraren prezioa 220 eurokoa da (janaria eta edaria barne). Interesik izatekotan, deitu 635 75 08 78 telefono zenbakira. ■■■

JAIOBERRIAK

- **Ekhi Lertxundi Beldarrain.** Orion, maiatzaren 23an.
- **Iman Abdala Emboiric.** Orion, maiatzaren 26an.
- **Danna Lucia Tapia Lopez.** Orion, maiatzaren 27an.


HILDAKOAK

- **Martin Lizaso Manterola.** Orion, maiatzaren 31an. 86 urte.
- **Maria Luisa Azkue Azpiroz.** Orion, ekainaren 6an. 91 urte.
- **Igor Illarramendi Barjakoba** Orion, ekainaren 9an. 50 urte.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.


Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA**ra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

PUBLIZITATEA



niko
taberna

Karta
Pintxo tradizionalak
Okindegia



Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27



kutixi
kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17

OINARRI PODOLOGIA ZENTROA



Arrantzale kalea, 63 behea
ORIO
943-57 53 61
oinarri@podologia-oinarri.com
www.podologia-oinarri.com

Lizaso
Dekorazioa



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84
itzilizaso@gmail.com

PAKO IMAZ



pertsianak

PERTSIANAK
aluminioa
motorrak
automatismoak
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01
pakoimaz@hotmail.com · ORIO



MARIJO

ILEAPAINDEGIA
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO
943-13 47 29



Portu
Erretza - Jateketa

Kazolita, baserriko oilaskoa,
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA
943-89 44 34

MENDIZABAL
AROTZEGIA

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO
943-83 11 75 · 645 70 84 91
mendi@arotzgi.net



Sagasti
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Eusko Gudari, 7
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitatezko materialak
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com

Oreka
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa
Eskuzko terapia · Talka-uhinak
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



INDO

TRANSPORTES · FRIGORIFICOS

Garraio frigorifikoa
Nazionala eta Nazioartekoa



kamarak



ibilbideak



generoa



garraioak


Ubegun industriagunea, 4
AIA-ORIO
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

Eragin al dizu TAO sistema berriak?



IÑAKI MAKAZAGA

Dezente eragin dit TAO sistema berriak. Herritik kanpo bizi garenez, beti makinara joan behar horrek denbora kentzen digu autoa aparkatzeko garaian, egia esan. Haurra ikastolara eramatean ere denbora gehiago hartu behar dugu makinara joan eta ordua jartzeko. Bestalde, nahiko egokia iruditzen zait nola dauden kokatuta marra urdinen guneak herrian barrena. Gainera, orain jarri duten aplikazio berri horrekin gauzak erraztu egin dira.



ANA MANTEROLA

Ordenantza berriak ez die askorik eragin garajea dutenei; niri, esate baterako. Oraindik ez dakit nola funtzionatzen duen hondartza inguruan, baina suposatzen dut udalak banatzen duen pegatinarekin ez dugula hondartzara joaten garen bakoitzean ordaindu beharko. Kanpoko jendeari gehiago eragiten diola esango nuke. Halere, nahiko prezio normalak direla iruditzen zait, ez dira oso altuak.



IDOIA ERASUN

Ez du eragin handirik izan nigan pertsonalki, bertan bizita udal-txartela dudalako. Inguruko herrietako jendea hona etorri behar denean, aldiz, eragin handia du. Eskola garaian edo hurrekin eskolaz kanpoko jarduerak dituzten gurasoentzat, adibidez. Aiatik edo inguruko beste herrietatik baldin badatoz, TAOren funtzionamendu berriak eragin handia izan du haiengan. Arazo handia da, bai ekonomikoki, bai autoa mugitzeko garaian. ■

Bizitzeko

Ayoon eta Max

Line

Phill

Reyes

Pablo

5 PERTSONA BIZIPEN

BIZI ITZAZU!



Orain dela mende erdi hasitako bidea

Hasiera batean abizenak despistatu badezake ere, ez du inork esango Tiar eta El Ghailani familiak oriotarrak ez direnik. Duela mende erdi utzi zuten Maroko bizimodu hobe baten bila, eta Orion aurkitu zuten beren bigarren etxean. Ordutik urte asko pasa dira eta 70. hamarkadan iritsi ziren marokoar horiek hirugarren belaunaldiari egin diote bidea.

Testua eta argazkiak: **Aiora Larrañaga Solaberrieta**



Abdelkader Tiar eta Seddiq El Ghailani ezagunak dira oriotarren artean. 70eko hamarkadan iritsi ziren herrira, beste hainbat marokoar bezala, eta mende erdi daramate bertan bizitzen. Heldu zirenean lana egitea zuten helburu bakarra, eta ez zuten sekula pentsatu ere egin oriotartu egingo zirenik, baina seme-alabak izan zituzten eta azken horiek hirugarren belaunaldiari ere egin diote bidea. "Ia konturatu ere egin gabe, hemen errotu dugu bizimoua".

Egunero ateratzen dira bi gizonak ohiko paseoa ematera eta kontu kontari aritzen dira oriotarrekin, adineko pertsona askori bezala gustatzen zaielako garai zaharrak gogoratzea. Herrira etorri berria denari baliteke, hasiera batean, atzerritarrak iruditzea, baina beraiekin hitz egiten hasi orduko konturatu daiteke herriko familiak eta txokoak bertako adinekoek bezain beste ezagutzen dituztela. Ez da gutxiagorako, beren herrialdean baino askoz urte gehiago baitaramate Orion. Errespetuz agurtzen dituzte bizilagunek, bizitza guztian zehar ezagutzen diren adinekoei egiten zaien bezala.

Abdelkader Tiar

Tiar baserritarra zen Marokoko herrixka batean. Lurrak ematen zuenarekin bizi ezin zitekeela ikusita, Tetuan (Maroko) hirira joan zen lan bila, baina etorkizun iluna aurreikusi zuen, eta migratzea erabaki zuen. "Familiako kide batek esan zidan jendea Espainiara joaten ari zela lan bila. Ezkondu berria nintzen eta oso gogorra izan

Abdelkader Tiar eta Halima El Emrani Moustapha eta Hassan semeekin tea hartzen etxeko egongelan.

Seddiq El Ghailani eta Abdelkader Tiar meskita aurrean.



Fernando Gaztañazpi eta Seddiq El Ghailani berriketan.

zen niretzat bizitza guztia atzean uztea, ezagutzen ez nuen herrialde berri batera etortzeko", aitortu du.

Hasieran, Euskal Herrira, iritsiurretik, Kataluniako Roses herrian obran egin zuen lan. "Bost hilabetez bizi izan nintzen bertan, baina oso gaizki ordaintzen zuten eta, gainera, etxebizitzarik ez zegoenez, txabola batean oso egoera txarrean bizi ginen". Lagun batek animatuta iritsi zen Euskal Herrira. "Orduan ari ziren Behobia eta Bilbo arteko A-8 autobidea eraikitzen. Lagunak esan zidan berak lan egiten zuen enpresa Donostia eta Orío arteko zatia eraikitzen ari zela eta jendea behar zutela lanerako". Bi aldiz pentsatu

gabe, Roses utzi eta Orío aldera etorri zen herrikide batekin.

Tiarrek gogoan du Amarako geltokian trenea hartu eta Oriorako bidea hartu zuen lehen aldia. "A zer nolako zarata ateratzen zuena tren hark. Mendi artetik sartu zen, eta guztiz harrituta geratu nintzen, ez bainuen sekula horrelako paisaiarik ikusi; beste mundu bat zirudien, oso gutxi zegoen eraikia eta dena zer berdea", ekarri du gogora.

Hasiera hartan, Txokolateneko etxean pisu bat alokatu eta bertan bizi ziren bi lagunak. "Etorri bezain pronto lanean hasi nintzen. Ez zen garai oparoa; ordu asko sartzen genituen lanean, 11 ordu eta erdi, baina bizitzeko adina ematen zuen". Aitortu du hasieran Orío nahiko herri arraroa iruditu zitzaioela; "ordurako baziren marokoarrak herri handiagoetan bizitzen, baina Orion ez zegoen etorkinik. Handik gutxira, pixkanaka hasi nintzen herrikideak ikusten. Batzuk Arozena adreilu fabrika lan egiten zuten eta beste batzuk Aian, hoditeria sistema goitik behera jaisten. Ni urte luzez aritu nintzen autobideko lanetan, eta hori bukatu zitzaidanean beste hainbat lan izan nituen. Ez da beti erraza izan, lehen lan-baimena eta egoitza-baimena desberdin izapidetzen zirelako, baina lortu genuen aurrera egitea". Behin hemen egonkortasuna aurkitu zuenean, Halima El Emrani emaztea ekartzeko aukera izan zuen eta familia izan zuten.

Seddiq El Ghailani

Antzeko ibilbidea egin zuen Seddiq El Ghailanik ere. Artzain lanetan aritzen zen Marokon eta etorkizunik ez zegoela ikusita, Herbehereetara migratu zuen familiako kide batzuk han zeudela aprobetxatuz. Orduan 30 urte zituen; Zainab Hammoudan

emaztea Marokon utzi zuen hiru seme-alabarekin eta Europarako bideari ekin zion. "Garai horretan ez nuen lan egiteko baimenik eta turista bisatuarekin Europako hainbat herrialde zeharkatu nituen Euskal Herrira iritsi aurretik: Herbehereak, Belgika, Frantzia eta azkenik Euskal Herria. Herbehereetan polizia dokumentazioa eskatu zidan eta turista bisatua nuela ikusi zuenean, dirurik ba al nuen galdetu zidaten. Ez neukan ezertxo ere, eta kalobozora eramanez ninduten hiru egunez. Horren ondoren herrialdea uztea erabaki nuen eta lan bila abiatu nintzen, Euskal Herrira iritsi nintzen arte".

El Ghailanik gogoan du Donostiako Gros auzoan bazegoela marokoarrak biltzen ziren taberna bat; "han nengoela enpresari bat etorri zen nork lan egin nahi zuen galdezka, eta Hernanin lan egiteko kontratatu ninduten. Garai hartan Hernanik ez zuen hoderia sistematik, eta hori eraikitzen lan egin nuen lehen urteetan. Aire librean lan egiten genuen eta oso gogorra zen, orduan eguraldiaren baldintzak orain baino gogorragoak zirelako. Askotan egin behar izaten nuen lan elurretan". Handik gutxira herrikide batek adreilu fabrika batean lan egitea eskaini zion, eta onartu egin zuen. "Adreiluak egosteko labe handiak genituen fabrika eta bero handia egiten zuen. Elurretan lan egiteko bero handiarekin lan egitera igaro nintzen, baina nahiago nuen. Egun osoan zehar lan egin ondoren, bertan geratzen nintzen lotan, etxean baino epelago egoten zelako negu partean".



NON DAGO KARKARA?

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatuta aurkitu behar da, eta erantzuna karkara@karakara.eus e-posta helbidera bidali uztaillaren 22a baino lehen.

Saria: Bi laguntzako gosari bat Kutixin eta Ontza liburu dendako opari bat. Karkara komunikazio taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Ekaineko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkatuta zegoen asmatu behar zen. 33. orrialdean zegoen ezkatuta, eta **Igon Lertxundi** bazkidea izan da irabazlea.

Adreilu fabrikan lanean ari zela gaixotu egin zen Seddiq El Ghailani, eta Marokora bueltatzea ere pentsatu zuen. "Amore eman nuen. Etxera itzuli nahi nuen familiarekin, oso nekatuta bainengoen, baina nagusiak ez etsitzeko eskatu zidan eta lanpostu berri bat eskaini zidan".

Oriotarren laguntza

Urte asko bakarrik pasatu zituen El Ghailanik, bera Euskal Herrira iritsi eta 20 urtera lortu baitzuen Zainab Hammoudan emaztea eta seme-alabak ekartzea. "Bi-hiru urtetik behin udako oporraldian joaten nintzen Marokora bisitan. Niretzat oso gogorra zen hainbeste denbora familia ikusi gabe egotea, orduan ez baitzeuden gaur egungo aurrerapen teknologikoak". Ordurako enpresak Ubegun industriagunean zuen lantegira pasa ninduten, eta Arantzazuko Andra Mari auzoan etxebizitza alokatzeko aukera eskaini ziguten langileoi. Orduan ekarri nuen familia".

Bi familiek harreman estua izan dute oriotarrekin eta eskertuta daude "oso ondo" hartu dituztelako beti. El Ghailanik kontatu du hasieran Oriora bizitzera etorri zenean "oso herri txikia" iruditu zitzaioela. "Azken hamarkadetan asko hazi den arren, garai hartan oso gutxi zegoen eraikita, baratza besterik ez zegoen hemen".

Benetan eskertzen die urte hauetan guztietan laguntza eskaini dioten oriotarrei, garai zailak pasatzea ere tokatu zaiolako. "Une batean familia hartu eta Marokora bueltatzea ere pentsatu nuen. Fabrikan egindako lanak eragindako biriketako gaixotasuna atzeman zidaten. Balioezintasuna tramitatzen ari ginen eta enpresak esan zidan alokairuan nuen etxebizitza erosi edo handik alde egin beharko genuela. Nik, ordea, ez neukan pisua erosteko dirurik, eta egoeraren larritasuna ikusita, Fernando Gaztañazpik eta Pilar Zalduak lagun arteko bazkari bat antolatu zuten olidendarren txabolan eta diru bilketa abiatu zuten inguruko artean, guk etxebizitza erosi genezan". Azkenean, El Ghailani tratu batera iritsi zen lantokiarekin eta ez zuen herritarren artean bildutako dirua behar izan etxebizitza erosteko, baina aitortu du ez zaiola sekula ahaztuko oriotarrek bere familiarengatik egindakoa.

Meskita

Orioko komunitate musulmanarentzat lorpen garrantzitsua izan zen herrian meskita sortzea. Orion bizitzen hamarkadak zeramatzen marokoar familiak izan ziren meskita sustatu zutenak, urte luzez horrekin amets egin ondoren. "Aspalditik nahi genuen meskita bat Orion", azaldu du Tiarrek. 1982an, esaterako, Marokokoartzelona kontsula izan zen Orion, Esnal Hotelean egin zen bilera batean. "Euskal Herri osoko marokoarren ordezkariak bildu ginen bertan. Alde batetik, Bilbon kontsulatua irekitzea eskatu nahi genien, garai hartan edozein izapide egiteraartzelona joan behar izaten genuelako. Bestetik, zer behar genituen ere ezagutu nahi zuen kontsulak. Eta bilera horretan aipatu zen lehen aldiz marokoarrontzat gune bat edo meskita bat irekitzeko beharra", azaldu du Tiarrek. Hiru hamarkada geroago bete zuten ametsa, ordea. "80ko hamarkadan frankismoa bukatu berria zen eta demokrazia giroan lege berriak sortzen ari ziren herrialdea garai

ORIOKO KOMUNITATE MUSULMANARENTZAT LORPEN GARRANTZITSUA IZAN ZEN MESKITA SORTZEA

DON ANDRES GARMENDIA ORIOKO APAIZA ZENAREN "LAGUNTZA HANDIA" IZAN ZUTEN

berrietara egokitzeko. Zenbait arlo oraindik garatu gabe zeuden eta oso zaila zen horrelako proiektu bat aurrera eramatea", azaldu du Hassan Tiar semeak. Azkenean, 2005ean abiatu zituzten meskita irekitzeko izapideak eta bi urte geroago, 2007an, ireki zituen ateak. "Hasieran ez genekien zer forma juridiko eman behar genion meskitari. Ordurako Zumarragakoa eta Eibarkoa dagoeneko irekita zeuden, eta horien esperientzian oinarrituz eta abokatu batekin hitz eginda ekin genion bideari. Mota horretako izapideek denbora asko hartzen dute: identifikazio fiskaleko kodea sortu, estatutuak egin, lokala erosi, obra lizentziak lortu, barruko egokitzapenak egin... luze jo zuen. Gainera, lokala erosteko bakoitzak ahal genuena jarri genuen, eta meskitaz meskita joan ginen borondatea eskatzera", aitortu dute.



Hasiera batean, polemikaz beteta ireki zituen ateak meskitak, zenbait herritarrek sinadura bilketa abiatu baitzuten meskita ez irekitzeko eskatuz. "Kontuan hartu behar da 2001eko irailaren 11n Al Kaedak atentatuak egin zituela New Yorken eta Washingtonen, eta handik urte gutxira, 2004ko martxoaren 11n Madrileko atentatuak gertatu zirela. Horrek islama jomugan jarri zuen eta guztiz aldatu zen gizarteak musulmanon inguruan zuen iritzia". Garai horretan giroa oso "nahasia" zegoela gogoratu du Moustapha Tiarrek, eta jendea "beldurtuta" zegoela.

Dena dela, Tiar eta El Ghailani familiek nabarmendu dute Orion ez dutela bazterkerik sentitu marokoarrak eta musulmanak izateagatik. Gainera, azaldu dute oriotar askok ez badakite ere elizarekin "oso harreman estua" izan dutela beti. "Don Andres Garmendia apaiza zenaren laguntza handia izan genuen, eta biltzeko gunerik ez genuenean elizako saloia uzten zigun gure ospakizunetarako edo hizkuntza arabiarreko klaseak emateko. Beti eskertuko dugu elizak gurekin izan duen jarrera. Orain arte Orion egin dugun bezala, kulturen arteko errespetuan bizitzea da gure nahia".

IBER glass 

Kristalen konponketa eta aldaketa
Eguzki lamina ilunak
Errotulazioa
Seguruekin kontzertatuta
Txanda eskatzeko: 689 34 11 01



Estropalari, 12

 **LAIARAN**

Kuadrilentzako
kamisetak, zapiak....

"Asko miresten ditut nire aitona-amonak, oso ausartak izan ziren"

NAUDAR EL GHAILANI MAROKOAR JATORRIKO ORIOTAR GAZTEA

Europar barrena dabil Naudar El Ghailani (Orio, 2001) azken hilabeteetan, eta herrialde berriak eta bertako errealitatea ezagutzeak gai askoren inguruan hausnartzeko aukera ematen diola aitortu du. Duela 50 urte Euskal Herrira etorri ziren familia marokoarren hirugarren belaunaldia da oriotar gaztea eta Herbereheetatik hainbat gai izan ditu hizpide KARKARArekin.

Ikasketak amaituta, Herbereheetara joan zara. Zer sentitu duzu jaioterria utzi eta beste herrialde batera bizitzera joan zarenean?

Hasieran beldur pixka bat ematen du. Haurra nintzenezan egon nintzen hemen bisitan, baina ez nintzen gehiegi gogoratzen. Duela bi hilabeteetatik hemen bizi naiz, eta desberdintasunak sentitzen ditut Euskal Herriarekin alderatuta.

Orain hobeto ulertzen al duzu zure aitona-amonak sentitu zutena Marokoko herririka utzi eta Euskal Herrira etorri zirenean?

Nik uste dut beraiek bizi zuten talka askoz handiagoa izan zela, Maroko eta Europa arteko kultura desberdintasuna askoz nabarmenagoa delako; bi mundu desberdin dira; bi mundu ikuskerak. Nire aitona-

amonak helburu argia zuten Euskal Herrira etorri zirenean, familiari etorkizun hobe bat eskaintzeko lan egitea, eta horretan saiatu dira hamarkada hauetan guztietan. Horregatik, uste dut nahiz eta mende erdiz Orion bizi izan, ez direla sekula bertakoak sentituko. Heine txikiago batean, niri ere antzeko zerbait gertatzen zait. Euskal Herrian jaio banaiz ere, ez naizelako sentitzen %100 euskalduna, ezta %100 marokoarra ere. Bi kulturen artean hazi izan naiz eta identitate anitza dudala esango nuke. Orio nire jaioterria izanda horrela sentitzen banaiz, ulertzen dut nire aitona-amonak hemen ondo eta gustura egon arren, marokoarrak sentitzea. Beraien txikitako oroitzapenak, ama hizkuntza, familia eta kultura Marokon daude; hura da beren jaioterria, etxea.

Hirugarren belaunaldia zara zu. Zure familiak Marokoko balioak transmititzeko ahalegin handia egin al du?

"BI KULTUREN ARTEAN BIZITZEA EZ DA BETI ERRAZA IZATEN"

Bai eta asko eskertzen diet. Dena dela, bi kulturen artean bizitzea ez da beti erraza izaten. Etxean era bateko balioak transmititzen zizkiguten eta kalean beste batzuk, eta horrek gaztetxoak zaren identitate krisia sortzen du. Pribilegioa da bi kultura izatea, baina norberak bilatu behar izaten du bere bidea, identitatea, bateko eta besteko gauzarik onenak uztartuta. Ni, gainera, hiru ahizpetatik zaharrena naiz, eta antzeman dut gurasoek nirekin kezka gehiago izan dituztela; nolabait bidea ireki diet nire ahizpei.

Lagunek eta inguruak errespetatu al dute zure identitatea?

Ni txikitatik ondo, integratuta, sentitu izan naiz, baina aitortu behar dut zenbait unetan lekutik kanpo ere sentitu naizela, besteegandik desberdina, alegia. Haurra nintzenezan, esaterako, batzuetan gaizki sentitzen nintzen, iseka egin behar zidatenean beti nire aitona-amonen eta gurasoen jatorriko kulturari egiten ziotelako erreferentzia. Askotan jendeak desberdintasun horiei garrantzia handia ematen die eta haurra zarenean ez duzu ulertzen zergatik gertatzen den hori. Heltzen joan ahala ikuspegia aldatzen da.



Gainera, Orion ez ditut izan nire egoera bera bizi duten lagunak, nire lagun taldea bertakoak zelako, eta horren falta ere sumatu dut nolabait. Izan ere, gaztetan ohartu naiz bizi izan ditudan egoera asko ez zaizkidala niri bakarrik gertatu, eta esperientzia horiek besteekin partekatzea oso aberasgarria iruditzen zait.

Hala ere, orain Orion kultura-aniztasun gehiago dago. Gaur egungo haurrentzat errazagoa izango al da?

Nire garaian ez zegoen gaur dagoen aniztasuna herrian, baina orain asko aldatu da egoera eta uste dut haur horientzat garrantzitsua dela beren egoera bera bizi duten beste hurrekin harremana izatea, bakarrik sentitu ez daitezen. Askok hausnartu izan dut gaiaz, eta nire aiton-amonak iritsi ziren garaiaz pentsatzen dudanean konturatzen naiz duela 50 urte zeinen zaila izango zen herrialde berri batean integratzea hizkuntza, kultura

eta erlijio desberdina izanda. Askok miresten ditut, bizitza hobe baten bila jaioterria utzi zutelako ezezaguna zen herrialde batera etortzeko; oso ausartak izan ziren.

Herbehereak Euskal Herria baino herrialde anitzagoa da. Nola sentitzen zara bertan?

Ondo. Ahizparekin gai horri buruz hitz egiten egon nintzen lehengoan. Orain Amsterdamen bizi naiz eta uste dut hiri honetan gehiago direla kanpotarrak bertakoak baino. Kultur-aniztasun handia duen hiria da, eta oso eroso sentitzen naiz. Gainera, niretzat pozgarria da jendaurreko postuetan edo lanpostu garrantzitsuetan emakumeak buruko zapia jantzita lanean ikustea, Euskal Herrian oraindik ez baita hori lortu. Nik neuk ez dut buruko zapia erabiltzen, baina ezagutzen ditut neskak eta emakumeak jantzen dutenak eta zenbaitetan horregatik baldintzatuta sentitzen dira. Hemen, berriz, naturaltasunez ulertzen dute emakume musulman batek zapia jantzita izatea eta horrek sekulako poza ematen dit. ■■■

NI GAZTEA NINTZENEAN EZ ZEGOEN ORAIN DAGOEN ANIZTASUNA HERRIAN



2022a ere Xakobeo Urtea

2004. urtean aterpetxe hau ireki zenetik kostaldeko Done Jakue bidearen bilakaera nabarmena izan da. Lehenengo urteetan erromes gutxi ikusi ohi ziren gure bideetatik. Apurka-apurka, oparotasuna irabazten joan da bidea, eta horren adibide dira bidean zehar irekitzen joan diren aterpetxe ezberdinak edota seinaleztapenen ugaritzea. Gaur egun ez da arraroa erromesak Kukuarritik behera, Herriko Plazan atsedean hartzen edo zerbait jaten ikustea.

Hala eta guztiz ere, 2020. urtetik jasan ditugun murrizketek izugarriko mina egin diete gurea bezalako aterpetxe pribatu zein publikoei. Alde batetik, bidea egitera bertaratzen diren erromesen gehiengoa

atzeritarra delako. Mugak itxiak egoteak oztopatu egin die Euskal Herriko zein kanpoko erromesaldia burutzea. Bestetik, edukiera aldetik bizi izan ditugun murrizketek ere zaildu egin dute horien jarraipena.

San Martin aterpetxeak bere ateak lehen aldiz ireki zituenetik, bi Xakobeo urte (edo urte santu) igaro dira. Hamar urtetik behin gertatzen da hori. Lehena 2011. urtean izan zen, hain zuzen ere. Urte hau berezia izan ohi da bidea egiten

**GURE HERRIALDEA,
KULTURA ETA HIZKUNTZA
EZAGUTZERA EMATEKO
MODU EZINHOBEA DA
BIDEA**

ari denarentzat, baita horiek zaintzen dihardugunontzat ere. Izan ere, erromes kopurua asko igotzen da eta sasoi berezia izan ohi da, gehienbat, sinismenak bultzatuta bidea egitera datoztenentzat.

Aterpetxe honek bizi izan duen bigarren Xakobeo urtea 2021. urtean izan zen. Osasun egoerak eta horrek ekarri zituen murrizketak zirela medio, 2022ra atzeratu zuen aita santuak. Historian bi aldiz bakarrik gertatu da hori: lehen aldiz Espainiako gerran eta bigarrenez aurreko urtean.

Azken bi urteak gogorak izan direla ezin daiteke uka, ez guretzat bakarrik, noski. Iazkoa, agian, bereziki. Izan ere, murrizketen etengabeko aldaketa kudeatzea ez da batere erraza izan, eta logela partekatzea erabakitzen zuten

HAUXE BAI JENEROA!



erromes gutxi horien beldur puntua eta mesfidantza sentitu eta gorpuztu ditugu, gehiago edo gutxiago. Hala eta guztiz ere, lanean jarraitu dugu eta badirudi aurten, azkenik, pandemia aurreko egoerara itzultzen ari garela pixkanaka.

Momentuz, jasotzen ari garen erromesak atzerritarak dira. Europatik datozenak, gehienak. Esate baterako, Danimarka, Frantzia, Herbehereak, Italia, Ukraina, Polonia, Eslobenia, Txekiar Errepublikak... eta, beti bezala, Alemaniatik datoz erromes gehienak. Baina, Europatik kanpoko herrialdeetatik ere jaso ditugu erromesak, nola ez, hala nola Ameriketako Estatu Batuak, Argentina, Filipinak, Txina, edota Hego Koreatik.

San Martin aterpetxean baikorrek gara. Uste dugu bide

honek potentzial handia duela oraindik ere hazteko. Gure lurraldea, kultura eta hizkuntza mundu guztiari ezagutarazteko modu ezin hobea delakoan gaude. Gainontzeko turistekin konparatuta desberdina izan ohi da erromesa. Interesgarria da gure ustez hau babestea. Kostaldeko Done Jakue bidea indarra hartzen joaten bada, azpiegiturak beharko dira bidean zehar. Izan ere, jada aterpetxe falta nabaria sumatzen dugu. Donostia, Zarautz edo Zumaia bezalako toki turistikoek, esaterako, ez dute erromesen aterpetxerik eskaintzen. Hori dela eta, asko beste bideetara mugitzen dira, eta pena da. Instituzio publikoetatik arazo horri konponbidea eskaintzea aukera ona litzatekeela deritzogu. ■

NIRE HONETAN



MIKEL EIZAGIRRE

Zartagina eta uda berotzen

Uda hasiera, goizeko 06:30 iratzargailuan. Gorputza altzarazi eta gogoa eraisten dizun eguneroko zarata gogaikarria belarri ondoan. Zure arbasoen patrika hutsak eta logurea madarikatu dituzu, zureak baitira gaur, zure seme-alabenak bihar.

Taberna zabaltzen ikusten duzun gazte bakoitzarekin identifikatzen zara. Aurten libratzea lortu duzu, unibertsitateko titulu ziztrin batek ogibide arinagoa baimentzen dizulako. Baina tabernan lankide izan dituzun horietaz oroitzen zara: oinarrizko ikasketak ozta-ozta amaitu dituztenetaz, kamioien azpian ezkutatuta etorri direnetaz... Haientzat, ostalaritzan lan egitea ez da beste aukera bat, aukera bakarra baizik.

"Ostalariek zerbitzari falta salatu dute", irakurri duzu egunkari zalantzarri batean; gazteleraz. Irribarre konplizeak ihes egin dizu, "baldintza hauek nahi ez badituzu beste mila datoz zure atzetik" hainbeste aldiz entzun ondoren, ilara amaitzen ari dela fantaseatzean. Ez da horrenbesteko izango, zartagina kirtenetik helduta dute oraingoz.

"Ostalaritzako esplotazioari aurre egin", dioen kartel bati begira geratu zara kalean. "Bejondeiela!", diozu zuk ahapeka. Ea olio beroak zartaginetik salto egiten duen. ■





Zientzialariaren jakin-mina

LOHITZUNE SOLABARRIETA INGIENEARIA

Ondarrutarra da Lohitzune Solabarrieta, duela 14 urte oriotartua; jakin-min handikoa, ingeniaria eta itsasertzeko korronteetan aditua.

Asko ikasi behar al da zientzialaria izateko?

Ikastea oso garrantzitsua da, bai, baina zientzialaria izateko, horretaz gain, jakin-min handia izan behar da. Zientziaren bidez, inguruan gertatzen ari diren gauzak zergatik gertatzen diren ulertu eta aztertzen saiatzen gara, eta, horretarako, ezinbestekoa da gertaera horiei buruz gehiago jakin nahi izatea. **Zientzialariak gutxi ezagutzen ditugu, eta kirolariak asko. Ez da justua!**

Aldatu dezagun, bada! Kirolarien ospea ez daukagun arren, pertsona asko ari gara egunero zientziarekin lotutako lanak egiten. Botika bat erostean, mugikor bat erabiltzean, edota bihar zer eguraldi egingo duen entzuten dugunean, gogoratu ekintza horietako bakoitzaren atzean zergatia galdetu, eta erantzunak aurkitu zituzten zientzialari talde handi bat dagoela.

Zergatik dira garrantzitsuak itsas korronteak?

Lur planetaren azaleraren %70 ura da eta gehiengo itsasoak osatzen du. Itsas korronte handiek ur hotza eta beroa gure planetako hainbat lekutara



garraiatzen dute, eta, ondorioz, munduaren inguruan hezetasuna eta beroaren zirkulazioa sortzen da. Eta zirkulazio mota hori ezinbestekoa da gizakia gure planetan bizi ahal izateko. **Lehenagoan helioa ekarri zenigun gelara eta probak egin genituen globoekin. Noiz botako duzue globoa espaziora?**

Hurrengo astean botatzea aurreikusten dugu, eta, horretarako, gure esku dagoen guztia egiten ari gara. Baina kontuan izan globoa aireratzeko, eguraldiaren iragarpen egokia, aire eremuko arduradunen baimena eta zuek jaurtiketaren momentuan bertan egotea behar-beharrezkoak direla. ■■■

PERTSONA ASKO ARI GARA EGUNERO ZIENTZIAREKIN LOTUTAKO LANAK EGITEN



Aurrera, atzokoa ahaztu gabe

DBH4 bukatzeaz da. Benetan? Lau urte igaro ditugu irakasle astun hauekin elkarbizitzen, ikasgai bakoitzeko txapak entzuten, egin beharreko lanez kezkatzen... Baina guztia izan ote da hain txarra? Noski ezetz! Betidanik esan dugu Ikastolako urteak munduko gauzarik okerrenak direla, ez dutela ezertarako balio; baina noizbait jarri al gara eman dizkigun gauza on guztietan pentsatzen? Zenbat esperientzia, lagun, txango, joko, irakaspen... eta zenbat barre, algara, negar, baina aurrera egiten ere irakatsi digute. Orain arte ez gara ohartu ondoan izan dugun laguntza, ez diogu garrantzirik eman. Ez gara kontziente datorren ikasturtean irakasleak ez direla gutaz horrenbeste kezkatuko, ez gaituztela ia-ia ezagutu ere egingo eta ez dugula ikastolan edukitako harreman esturik izango. Gogotsu gaude hurrengo urtera begira, lagun berri pila bat egingo ditugu, gauza berriak ikasiko ditugu eta ikasketekin sufritzea zer den ezagutuko dugu. Faltan botako ditugu hemen egindako eta egunero-egunero aguantatu behar izan ditugun ezagun, lagun edo lagun min guztiak, liskar asko eduki ditugun pertsona horiek, edota, hitzik egin ez dugun pertsona. Irakasleak ere asko botako ditugu faltan. Gauza asko aldatuko dira, baina horiekin bizitzen ikasiko dugu. Mila esker guztiagatik. ■■■

GIZONEZKOAK

EUSKO LABEL LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak	
		klubean	Jaioterria
Mikel Arostegi	38	11	Orio
Xabier Arregi	30	16	Aia
Jon Arriola	22	9	Orio
Ibon Arruti	35	12	Orio
Joseba Azkonobieta	25	9	Zarautz
Jokin Azkonobieta	22	7	Orio
Bersaitz Azkue	40	5	Zarautz
Joseba Azurmendi	33	0	Donostia
Andoni Campos	31	11	Orio
Jon Carazo	31	8	Barakaldo
Kepa Eizagirre	29	8	Aia
Joritz Etxeberria	33	6	Donostia
Ander Etxagoien	35	0	Getaria
Ekhi Gozategi	19	7	Orio
Jon Iriondo	45	10	Ondarroa
Mikel Lizarralde	21	8	Orio
Aritz Lizarralde	27	14	Orio
Jon Lizarralde	22	8	Orio
Xabier Manrique	28	5	Donostia
Ugaitz Mendizabal	31	4	Irura
Jon Olaizola	22	8	Donostia
Josu Ostolaza	29	10	Usurbil
Joseba Pagadizabal	22	7	Aia
Joseba Rodriguez	19	7	Orio
Fernando Rua	47	0	Moaña
Imanol Sarasola	23	4	Aia
Iker Zinkunegi	27	4	Errezil

Entrenatzailea Jon Salsamendi

AUPA ORIO!

EMAKUMEZKOAK

EUSKOTREN LIGA

Arraunlaria	Adina	Urteak		Jaioterria
		klubean		
Naceth Agirre	28	14		Orio
Maialen Aizpuru	28	7		Getaria
Maddi Alkain	20	7		Aia
June Aranbarri	29	0		Ondarroa
Amalia Arregi	27	7		Aia
Ane Arruti	21	7		Aia
Itxaso Azkonobieta	25	12		Orio
Eider Barba	23	0		Hernani
Alaine Bereziartua	24	0		Aizarnazabal
Marina Sofia Cosci	22	0		Buenos Aires
Leyre Garate	33	8		Elgoibar
Tayde Gomez de Segura	30	6		Zarautz
Sarai Idigoras	20	7		Orio
Oihane Iraola	29	11		Tolosa
Helena Merino	25	0		Badalona
Andrea Oubiña	31	0		O Grove
Maria Victoria Piñeiro	37	3		Cangas
Edith Uranga	21	8		Orio
Mireia Uranga	24	8		Orio
Nagore Urdapilleta	22	0		Bidania-Goiaz
Uxue Urrea	22	0		Iruña
Noa Viaño	21	0		Redondela

Entrenatzailea Patxi Frances

AUPA ORIO!

BABESLEAK



ARRAUN DENBORALDIA 2022

ORIO

ARRAUNKETA ELKARTEA





ESTROPADEN EGUTEGIA

UZTAILA

Eguna	Estropada	Herria	Lehiaketa
2	Bilboko Bandera	Bilbo	TKE/Euskotren
3	Donostiako Bandera	Donostia	TKE/Euskotren
9	Coruñaiko Bandera (1.jardunaldia)	A Coruña	TKE/Euskotren
10	Coruñaiko Bandera (2.jardunaldia)	A Coruña	TKE/Euskotren
16	Orio kanpina Bandera	Orio	TKE/Euskotren
17	Zierbenako Bandera	Zierbena	TKE/Euskotren
23	Sestaoko Bandera	Sestao	TKE
24	Santurtziko Bandera	Santurtzi	TKE
30	Getxoko Bandera	Getxo	TKE/Euskotren
31	Lekeitioko Bandera	Lekeitio	TKE/Euskotren

IRAILA

Eguna	Estropada	Herria	Lehiaketa
17	Bermeoko Bandera	Bermeo	TKE
	Play Off 1	Bermeo	TKE/Euskotren
18	Portugaleteko Bandera	Portugalete	TKE
	Play Off 2	Portugalete	TKE/Euskotren

ABUZTUA

Eguna	Estropada	Herria	Lehiaketa
6	Hondarribiko Bandera	Hondarribia	TKE/Euskotren
7	Getariako Bandera	Getaria	TKE/Euskotren
13	Ondarroako Bandera	Ondarroa	TKE/Euskotren
14	Caixa Bank Bandera	Castro Urdiales	TKE/Euskotren
20	Zarauzko Bandera (1.jardunaldia)	Zarauz	TKE/Euskotren
21	Zarauzko Bandera (2.jardunaldia)	Zarauz	TKE/Euskotren
27	Aresko Bandera	Ares	TKE
28	Boiroko Bandera	Boiro	TKE

IRAILA - KONTXAKO BANDERA

Eguna	Estropada	Herria
1	Sailkapena	Donostia
4	1. jardunaldia	Donostia
11	2. jardunaldia	Donostia

AUPA ORIO!

Denboraldia hasteko prest

Udarekin batera, iritsi dira traineru estropadak. Neguan eta udaberrian hainbat lorpen eskuratu ditu Orioko Arraunketa Elkartek, eta horrek traineruena ere denboraldi ona izan daitekeenaren esperantza piztu du. Dena dela, denboraldi berriaren prestaketan izan dituzte zailtasunak ere, eta taldekide eta entrenatzaile berriak ere sartu dira klubean. Denboraldiaren nondik norakoak ezagutzeko, klubeko hiru kide elkarrizketatu ditu KARKARAK.

Bihar, uztailak 2, abiatuko dute 2022ko traineru denboraldia Orioko Arraunketa Elkarteko talde nagusiek, eta prestatze lanak amaituta, beraien maila erakusteko irrikaz daude arraunlariak. Datozen hilabeteetako erronkak azaltzeko KARKARAK klubeko hiru kide elkarrizketatu ditu: batetik, Patxi Frances, *Txiki* ontziaren entrenatzaile berria; bestetik, Fernando Rua, aurten Oriora iritsi den ibilbide luzeko arraunlaria, eta, azkenik, Mainer Arrillaga zuzendaritzako kidea.

Oro har, guztiak bat datoz, eta uste dute kategoria edozein delarik ere, "aurreko denboraldiak eta orain arteko emaitzak ikusita, Orio lehenengo postuen artean borrokatzeko gai" izango dela. Frances Oriora aurten iritsi bada ere, gertutik jarraitu du oriotarren ibilbidea, Tolosaldeko emakumezko taldea entrenatu duelako hiru denboraldiz. "Lehia estua izango bada ere, nahi duen guztia eskuratzeko gai da taldea. Hori bai, eskifaia osatzeak nahikoa lan eman digu", ohartarazi du.

Rua eta Arrillaga, berriz, zorrotzago aritu dira gai horren inguruan. Jendea aurkitzea eta haien interesa piztea geroz eta zailagoa dela iritzi diote eta, horrela, epe luzera pentsatzea zaila da haientzat. Beraien iritziz, inoiz baino beharrezkoagoa da gazteengan pentsatzea eta harrobiari jarraikortasuna emateko proiektu erakargarriak osatzea, arrauna galdu nahi ez bada.

Testua eta argazkiak: **Aritz
Pardina**

"Taldea izaera sortzea izan da lehentasuna"

PATXI FRANCES NESKEN TALDEKO ENTRENATZAILEA

Zer esan nahi du zuretzat Orioko arrauneko emakumezkoen taldea entrenatzeak?

Pertsonalki, ilusioa egiten dit hemen egoteak. Egia esan, ez nuen Orioren deia espero, baina, jaso nuenean, poza hartu nuen. Orio beti izango dut bihotzean. Gainera, hemen entrenatzaile aritzeko aukera hutsak klub honetan bizitako guztia gogorarazten dit. Oso gustura nago; klubak lasaitasuna transmititzen dit eta, hori kontuan izanda, gauza politak egiteko aukera izango dugula uste dut. Orioko emakumezkoen taldeak helburu guztiak lortzeko aukera du.

Ona izan al da denboraldiaren prestaketa?

Oso ona, pausoz pauso egin dugu aurrera. Izan ere, baja eta alta ugari izan ditugu, eta taldea bateratzea izan da lanik premiazkoena, talde sentimendua sortzea, alegia. Horrez gain, nik bilatzen nuen arraunketa lortzen saiatu gara, eta bide onean gaude. Epeak zuzen bete ditugu, eta emandako pausoak onak izan dira. Hala, beharrezko gurtzaldi abiadura lortu dugu, eta geratzen den bakarra da ontziak potentzia osoan nola erantzuten duen ikustea.

Zer balorazio egiten diozu Euskotren ligari?

Nire ustez liga honetako taldeen maila asko igo da denbora gutxian: ontziak oso



bizkorak dira, zerikusirik ez du duela hiru edo lau urte ikusten genuenarekin. Aldaketa nabarmena izaten ari da. Iruditzen zait, oro har, beharrezko urratsak egin direla hori gerta dadin.

Lehen, adibidez, erraza zen begiratu hutsarekin nesken eta mutilen traineruak elkarrengandik desberdintzea. Gaur egun, ordea, oso zaila da.

"TALDEA GOGOTSU DAGO ETA ARRAUNLARIAK OSO LEHIAKORRAK DIRA"

Are gehiago, esango nuke urrutira ezin daitezkeela bereizi. Klub guztiak lan handia egin dute parekotasun hori lortzeko, eta uste dut horrek eman dituen fruituak agerikoak direla. Nahikoa da egiten dituzten denborak ikustea.

Denboraldia ondo hasi duzue, Gipuzkoako txapelketa irabazita.

Zeintzuk dira helburuak?

Taldea gogotsu dago.

Arraunlariak oso lehiakorrek dira, eta ziur esan dezaket estropadaro duten guztia emango dutela uretan.

Gainera, Gipuzkoako txapelketa garrantzitsua da, eta hura irabazteak eman digu motibazioa.

Denboraldiko helburuei dagokienez, aurreratu bezala, banderazko seinalearen ondoren ahalik eta ondoen lehiatzea dugu buruan. Gure xedea parte hartzen dugun lehiaketa guztiak irabaztea da. **Gipuzkoako txapelketan ligako beste hiru traineruak ere indartsu daudela ikusi zen. Zer espero daiteke aurtengoaz?**

Talde guztiok egiten ditugu denbora onak, bizkor aritzen gara eta ehuneko ehunetan lehiatzen dugu. Gu ondo hasi gara, baina, aipatu bezala, maila handia da. Estropada bakoitza ezberdina izango da eta, noski, estua eta irabazteko zaila. Guk garbi dugu gure nahia; hortik aurrera, ikusiko dugu zer gertatzen den.

"Gauza politak egin ditzakegula uste dut"

FERNANDO RUA ARRAUNLARIA



Arrauna familiatik al datorkizu?

Bai. Nire gurasoak Nuestra Señora de los Remedios de Tiraneko zuzendaritzako kideak ziren. Ondoren, San Juan de Tiranekin bat egin eta gaur egungo Tiran sortu zen. Fitxa izan aurretik hasi nintzen arraun lanetan. Adibidez, seniorrekin patroir teten nintzen. Familiako kluba zenez, bada, txiki-txikitan hasi nuen bidea.

Hainbat taldetan egindako ibilbide luzearen ondoren, Orikoa erretiratu aurreko fasea da? Nola sortu zen hemen arraunean egiteko aukera?

Kontua aspalditik dator. Pentsa, 1996. urtean, udaletxeko baloioan Kontxako estropadako ospakizuna egin

genuen. Guk finala irabazi bagenuen ere, Orio izan zen txapeldun, denbora baturarengatik. Igandean, ospakizun egunean, balkoira gonbidatu gintuzten; Tiraneko talde osoa! Horrek sakon markatu ninduen. Orduetik nuen Orion arraun egiteko gogo handia. Eta hara noiz sortu zaidan aukera, erretiratzea buruan nuenean.

Aukera Salsamendiren eskutik etorri zait. Izan ere, hura entrenatzaile izan nuen Bermeon. Oso ondo konpontzen gara, eta hark hots egin zidan. Orion erretiratzan banaiz, ni pozik.

Zein dira taldearen indargunea?

Taldearen indargunea dugun batasuna da, kideen arteko adiskidetasuna eta elkarrekiko dugun laguntasuna. Nahiz eta beste urteetan baino potentzia txikiagoa izan, aurten gauza politak egin ditzakegula uste dut.

Bestalde, oso talde gaztea da, ikasteko gogo handia duena. Nire iritziz, lorpen handiak egiteko gai izango da epe ez oso luzean. Oso zaila izango da baina, horretarako jarraikortasuna behar baita.

"TALDEAREN
INDARGUNEA KIDEEN
ARTEKO
ADISKIDETASUNA DA"

Zergatik diozu hori?

Bada, oro har, geroz eta arraunlari gutxiago dagoelako, eta jendea lotzea zaila izaten delako. Klubak hartzeko prest dauden zuzendaritza taldeak ere urriak dira azkenaldian. Horrela oso zaila da proiektu bati jarraikortasuna ematea. Oro har, esango nuke klubek epe luzearako planteamendu erakargarriak eduki ezean, zaila dela arraunlari berriak erakartzea edota klubean daudenei eustea. Orio ondo ari da lanean, baina horrek ez du esan nahi zailtasunik ez dagoenik.

Hori gutxi balitz, kontuan izan behar da arraunak eskatzen duena: entrenamenduak, dieta, hondartzara joan ezina... Egungo belaunaldiak ez daude halako sakrifizioak egiteko prest. Begira ni. Nire ustez, 47 urterekin, ez nukeen arraunean jarraitu beharko. Hori arazoaren adierazgarri da. **Zer eskain diezaiokezu taldeari? Zer lortu nahi duzue?**

Dudan esperientzia da taldeari ematen saiatuko naizena eta, zentzu horretan, ahal dudan ekarpenik handiena egiten saiatuko naiz. Hortik aurrera, traineruan postua lor badezaket, are hobeto. Dudan guztia ematera nator eta, noski, nire postuarengatik lehiztera.

Lortu nahi duguna, berriz, lehengo urtean Oriok TKE ligan banderarik irabazi ez zuela ikusita, aurrerapausoren bat eman eta bandera bat edo beste etxeratzea da. Hori lortuz gero, oso gustura egongo nintzateke.

"Hiru mailatan lehiakorrek izatea dugu helburu"

MAIDER ARRILLAGA OAEKO ZUZENDARITZAKO KIDEA



Zer jarrerarekin hartu duzue aurtengo traineru denboraldia? Zeintzuk dira erronkak?

Gogotsu gaude. Gainera, azken bi urteak oso gogorrak izan dira arraunlarientzat, izurritea dela eta. Askotan bakardadean entrenatu behar izan dute, estropadak jarraitzailerik gabe jokatu dituzte...

Hiru mailatan lehiakorrek izatea da gure helburua. Ildo horretan, KAE ligan puntutxo bat gora igo eta goiko taldearekin zubi lana egiten jarraitzea garrantzitsua da. Euskotren eta Eusko Label ligetako gure traineruekin, berriz, ahal den goren ibiltzea da helburu nagusia, nahiz eta jakin lehia gogorra izango dela eta, banderak ere, oso garestiak.

Zer balorazio egiten duzu batel, trainerilla eta aulki mugikorreko denboraldiez?

Oso ona, arraunlari asko baititugu, eta emaitza ederrak sortu ditugu neguan eta udaberrian. Orion pozik egoteko moduan gara. 105 arraunlari ditugu gazte mailan. Borondate eta konpromiso handia erakusten dute, horrelako kirol diziplinatuari eustea zaila baita. Hori gutxi balitz, maila oso polita ematen ari dira. Egunerokoan egiten ari diren lana izugarria da, bai arraunlari gaztetxoak, bai beraien entrenatzaileak.

"AZKEN BI URTEAK OSO GOGORRAK IZAN DIRA ARRAUNLARIENTZAT IZURRITEA DELA ETA"

Orio oso herri arraunzalea izanda ere, lana egin behar da gazteak erakartzeko?

Alebinetatik hasten gara arrauna zer den erakutsi nahian, astean pare bat entrenamendu eginez, ea gutxinaka grina sortzen zaien. Herriko bi ikastetxeetako haurrak ere etortzen dira eta udako ikastaroak antolatzen ditugu urtero. Dena dela, erakargarritasuna goi mailako arraunlarien entrenamendu eta garaipenek ematen dute sarritan. Gaztetxoak moilan igerian daudenean eta trainerua pasatzen denean, edo banderak irabazi ondoren udaletxeko balkoira aterata ospatzen denean... zenbat gaztek arnestuko ote dute hori bizitzearekin?

Pareko daude klubean federatzen diren neskak eta mutilak?

Gaur egun parekotasun handia dago Orion, %55 mutilak dira eta %45 neskak. Hori Nadeh Agirre eta beste hainbat eta hainbat emakume arraunlariri esker izan da, eredu bilakatu baitira askorentzat.

Traineru Kluben Elkarteak jakinarazi zuenez, 2023tik aurrera zortzi traineru arituko dira Euskotren ligan. Zer irizten diozue aldaketari? Garaiz iritsi da?

Bere garaian adierazi genuen bezala, aldaketaren aldekoak gara. Guztiarekin ere, ez dakigu momentu egokian etorri den, zalanztak ditugu. Esaterako, Orioko emakumezkoen senior mailan 10 baja izan ditugu aurtan, eta jakin badakigu elkarte askok arazoak dituztela traineruak osatzeko. Hala eta guztiz ere, denborak erakutsiko digu une egokia den ala ez. ■■■■

Buenrollistak



ELI HUEGUN ARRUABARRENA

Twitterren orduak eman ditzakeen hoiretakoa naiz. Orokorrean interesgarria iruditzen zait, dibertigarria ere bai, baina, batzuetan, desplazerra ere eragiten dit; orain egun gutxi, azkenekoz.

Txioa neska baten kexa zen, elkarrizketa batek eragin zion haserrea salatzen zuena. Elkarrizketa bi argazkitan azaltzen zuen. Lehenengo argazkian, titularra: Hobe da ezer ez gosaltzea, kafesnea ogi xigortu eta marmeladarekin jatea baino. Ez daukat horri buruzko jakintzarik, beraz, noan bigarren argazkira. Galdera-erantzun bat. Gizonak dio duela 40 urte baino okerrago jaten dugula. Zergatik? Etxeetan ez delako kozinatzen. Eta hori guztia emakumea lan mundura sartu denetik gertatzen da; oso gauza ona omen da hori berez, baina ondorio txar hori ere ekarri omen du. *Uau.*

Horrelakoetan komentarioak irakurtzera sartzea da erritualaren hurrengo fasea, ea jendeak zer dioen. Orokorrean, gauzak bere onetik ez ateratzeko, oso garbi omen dago zer esan nahi zuen. *Mansplainerrak* nonahi. Ulertu dugu zer esan nahi zuen: esan duena, hain justu ere. Eta arazoa da pentsatzea kaltea emakumea etxe zuloetik atera izanak eragin duela, eta ez gizona sartu ez izanak. Ez naiz ni familia eredu nuklear tradizionala (senarra, emaztea eta seme-alabak) oinarritzat hartzen dituen, baina elkarrizketatu honek hala egiten duenez, termino horietan mintzatuko naiz.

Diskurtso hau daukatenentzat ondo dago emakumeak etxetik kanpo lan ordaindua egitea, baina etxe barruan egiteke geratzen diren zeregin horiek ez direla egingo aintzat hartzen dute, gizonezkoak egin ditzakeela pentsatu beharrean. Alegia, gabezia ikusten dugu, baina gabezia horren oinarria noranzko zehatz batean bakarrik jartzen dugu: amak etxetik kanpo lan egiten du, beraz, zaintza lanak asko murriztuko dira; aitak lehen zeuzkan erantzukizun berdinak izaten jarraituko du. Beste era honetan ere esan daiteke: etxetik kanpoko lana konpartitua da baina etxe barrukoa ez, eta hori horrela izatearen ardura emakumeak dauka, bera baita funtzioa aldatu duena.

Gaur egun lanaldi bikoitza deitzen zaion hori pairatzen du emakumeak, etxetik kanpo eta etxe barruan lan egin behar duelako. CISeko datuak dira, senar-emazteek lan ordaindua daukaten familietan, emakumeek gizonezkoen lana bikoizten dutela etxe barruan, seme-alabak izan nahiz ez izan.

Agian ez dute nahita egiten, eta ez dakit hori ez ote den are larriagoa. Diskurtso *buenrollista* horiek eraistea askoz ere zailagoa delako. Hartara, pentsatu behar dugu zer puntutan gauden eta nora iritsi nahi dugun, bidean zer egin behar dugun zehazteko. Twitter ez da leku txarra joerak detektatzeko. ■■■

**GAUR EGUN LANALDI
BIKOITZA DEITZEN
ZAION HORI
PAIRATZEN DU
EMAKUMEAK**

'Nire eguneroko bidaiia' Kostako ferrokarrilean



IÑAKI ITURAIN iturain@gmail.com

ARGAZKIAK: KUTXA FOTOTEKA ETA
PHOTOMUSEUN ARTXIBOA

"1895eko apirilaren 8an ailegatu zen trenea lehen aldiz Aia-Orioko geltokira. Egun hartan, Donostiatik Zarautzaino joan zen, 63 minutuan. Lasarten, Aginagan eta Orion geratu zen. Geltoki guztietan festa handia ospatu zen: jendea zain, itxaferuak eta musika. Donostia-Bilbao trenbidea bost urte geroago osatu zen". Horixe dio *Orio, historia argazkitan* liburuak (17. orrialdean).

Geroztik, orain arteko 127 urteko ibilbidean, gauza asko gertatu dira Orio eta Donostia lotzen dituen ferrokarrilean. Trenaren ohiko matxurez aparte, trenbidea bitan geratu da etenda: 1936ko irailean, dinamitero asturiarrek trenbidearen Altxerriko zubiaren parte bat bota zuten, faxisten aurrerabidea gelditzeko. Handik 25 urtera, 1961eko uztailaren 18an, ETA orduan sortu berriak saboteatu egin zuen trenbidea lehergailu txiki batekin, ordu gutxitara handik pasatzekoa zelako gerran Francoren alde borrokatu ziren soldaduak Donostiara zeramatzen trenea, hiriburuan faxisten estatu-kolpearen 25. urteurrena ospatzera.

Azken bi urteotan, trenean sartu aurretik, nasan bozgorailuko ahots mekaniko batek ohartarazten digu ahoa eta sudurra estalita izan behar ditugula, eta bidaiia isilik eta ahal dela bakarrik eserita egiteko. Pandemiarik gabe ere, aspaldi honetan bidaiari asko isil-isilik joan ohi da, bere baitan bildua, kableak belarrietan, segapotoari begira...

Garai batean, gauzak oso bestela ziren trenean. Horixe azaltzen digu Jose Artetxe azpeitiarraren *Mi viaje diario* liburuak (1950). Gauzak ederki aldatu dira Artetxek eguneroko trenez Zarautzik Donostiara joan-etorria egiten zuen garaitik. Bai horixe! Azken urteotan erosotasuna, maiztasuna eta puntualitatea irabazi ditu gure trenak, baina bizitasuna eta xarma galdu ditu.


**ASPALDI HONETAN
BIDAIARI ASKO
ISIL-ISILIK JOAN OHI
DA, SEGAPOTOARI
BEGIRA**

Iazko irailaren 16ko *Berria*-n Elixabete Garmendiak hauxe zioen: "Artetxeren liburuetan bat daukat bereziki kuttuna: *Mi viaje diario*, 1939-1945 artean Zarautzik Donostiara kostako trenean eguneroko egiten zuen bidaiari oinarritua. Oria ibaiaren bakarriketarekin hasten da kontakizuna, eta hortik aurrera garaiko gizartearen argazki-albuma osatzen du idazleak, trenean topatzen duen jende xumea erretratatu". Gazteentzat ez litzateke txarra izango, tarteka mobila alde batera utzita, Artetxerena irakurriz joango balira.

Artetxe Gipuzkoako Diputazioko liburutegiaren arduraduna zen. Huraxe zuen lana, eta Zarauzko etxetik joaten zen eguneroko Donostiara. Gerra bukatu berritan, frankismoko lehenengo urteetako giro itxi eta gogor hartan, trenean gertatzen ziren pasadizo bitxiak azaldu zituen liburuan. Bera ez zen batere aspertzen eguneroko joan-etorrian. Liburuko pasarte gutxi batzuk aukeratu ditugu, treneko orduko giroa azaltzeko.

Orain 77 urteko Kostako ferrokarrila

Estazioko jefeak txistua jota, abiatu da trenea Amaratik. Diru gutxiko garaiak ziren. Amarako



Kostako ferrokarrila, ordubate lehenago Donostiako Amarako estazioetik abiatutako egurrezko trena, baporezko makinaren indarrez, triki-traka, Aya-Orio geltokira iristen.

geltokian, trena abiatu aurretik, 19 urteko mutiko bat egunkariak saltzen ibiltzen zen nasan, eta bagoietan sartuta, oihuka: "*Unidad, Mundo, Dígame, Primer Plano, El ruedo, Marca...!*". Jendeak kirol egunkaria eskatzen zion, begirada azkar bat emanda igandeko partidua noiz zen jakiteko.

Bagoiak egurrezkoak ziren, baita eserlekuak ere, eta bereziak: primerakoak (garestiago, aberatsentzat), segundakoak... (orduko hiletak bezala). Iristeko behar zuten denborak berdintzen zituen bidaiari aberats eta pobreak: Zarautzik Donostiara, ordubate. Oriotik Donostiara bi joanaldi zeuden: goizekoa eta arratsaldekoa.

Usurbil ia ordu erdira zegoen Amaratik, baina Usurbilgo neskek ez zuten denbora hori galtzeko: puntua egiten joaten ziren, trikotatzen. Neskak Mariaren Alabak ziren (Eliza



Merkantzia-trena, Aia-Oriotik Zarautz aldera, Altzerriko zubiaren gainean, tunelean sartu aurretik.



1936ko irailaren 20an sartu ziren tropa faxistak Orion, Igeldo aldetik etorrita. Aurreko egunean, Errepublikaren aldekoek bi zubi eratsi zituzten Aia-Orio aldean, dinamita jarrita: erriorearen gainekoa eta Altzerrikoa.

katolikoko kongregazioa) eta antzerki lanak egiten zituzten; Artetxeri antzerkirako testuak eskatzen zizkieten, igandean emateko. Emanaldiaren biharamunean poz-pezik etortzen zitzaizkion, bezperako giroa kontatzera, xehetasun guztiekin, zenbat barre egin zuten eta zer ondo pasatu zuten aktore lana egiten.

Bazen orduan ofizio bat, aspalditxo galdu zena: rekadistena; herriko jendearentzat Donostiako dendetan enkarguak eta erosketak egitea zen haien lana. Trena erabiltzen zuten beren lanerako. Garai hartan herri guztietan zeuden rekadistak; inguruko herrietatik Donostiara goizean goiz joan eta

gehienetan azken trenean itzultzen ziren, egun osoa enkargutan eman ondoren. Ogi txuria ekartzea ere ia kontrabandoa zen garai hartan; rekadistek ahapeka hitz egiten zuten beren artean Donostian erositakoaz, espioiak balira bezala. Nahi eta ezineko garaiak ziren, kontuz ibiltzekoak. Rekadistak orduan ia denak gizona ziren. Orikoa ez, hura emakumea: Balbina *Txiki*.


Baporea Donostiako moilan utzita Orioko arrantzaleak, baporea Donostiako moilan uzten zutenean, trenez etortzen ziren etxera. Artetxek liburuan gomendatzen zuen haien ondoan ez esertzeko. Sartu eta lehenengo gauza leihoa

irekitzen zuten, baita elurra ari bazuen ere. Orduan, orain ez bezala, treneko leihoak zabaldu egiten baitziren.

Behin sekulako zaparrada ari zuen kanpoan; baina ia kanpoko bezain handia tren barruan ere. Ura sartzen zen toki guztietatik: leiho hautsiak, zirrikituak, itoginak... Halako batean, batek aterkia zabaldu zuen, babesteko. Artetxek ere babesa bilatu zuen aterpe hartan. Inor ez zen harritu.

Beste behin, dena elurtuta zegoen, zuri; hotz izugarria. Orion, neska esnezale gazte bat sartu zen. Sartzeko momentuan txori bat jarri zitzaion esku gainean, eta biak batera sartu ziren. Neskak txoritxo askatu zuen barruan eta hura, pixka bat epelduta, hegan abiatu zen bagoiaren barruan. Amarraino.

Getariako Ezekieli arrantzaleak behin kontatu zion Artetxeri aurreko urteko gau batean lau seme eta lehengusu bat galdu zituela itsasoan; eta aurreko astean, hildakoen senideen alde



Eskailera horietatik sartzen zen tren-geltokian. Argazkiaren behe-ekker aldean Aia eta Orio bereizten zituen mugarria ikus daiteke. Bide gurutze horretan Ixkiña taberna egon zen urte askoan.

ORIOKO ARRANTZALEAK BAPOREA DONOSTIAN UTZI ETA TRENEZ ETORTZEN ZIREN

egindako diru bilketan jasotakoarekin uretako beste motor-ontzi bat erosi zuela.

24 urtean 12 seme-alaba

Egun batean emakume bat sartu zen, besoetan haur bat zuela. "Amona biloba txikiarekin" pentsatu zuen Artetxek; baina handik gutxira, emakumeak alboetara begiratu eta, lasai sentitu zenean, bularra atera arropa azpitik eta haurrari titia ematen hasi zitzaion. "Baina zenbat dituzu zuk?" ausartu zitzaion bidaiari bat. Eta emakumeak: "Hamabi; zaharrenak 24 urte ditu, nik 49, hau da txikiena". Eta hori esatearekin batera, musu eman zion kopetan haur txikiari.

Bazen txori-zale amorratu bat ere. Hura aldamenean egokitzen zitzaion bakoitzean beste konturik ez zen izaten: txoriak eta txoriak. Behin erronka ere egin zion: bera gela batean sartu, zortzi kardantxilo kaiola banatan zeudela, eta baietz ezagutu haietako bakoitza nongoa zen, haien kantua entzunda, "hau Zumaiakoa, hori Getarikoa, hura Mendibeltzekoa, bestea Santa Barbarakoa..." Bakoitzak bere azentua omen zeukan eta berak antzeman. Beraz, txoriak eta txoriburuak, denetik.

Aginaga aldeko paisaia bukolikoa
Horraio azpeitiarraren liburuko pasarteak. Bukatu da

orduko bidaia. Treneko giro hura galduta dago, baina Orio eta Usurbil bitarteko kanpoko paisaia naturala geratzen zaigu. Bidaiak eskaintzen digun ikuskizuna gaur egun ere paregabea da. 2018an pantailaratu zen Koldo Almandozen *Oreina* pelikulak ederki erakusten du hori: Aginaga aldeko Oria ibarraren paisaia zoragarria. Goizaldean, askotan, lainoak ezkututzen digu errioa. Horrelakoetan, Mikel Laboaren abestia kantatu behar da, isilean: *"Zer ezkututzen duen ez didanean ikusten uzten, orduan hasten ikusten ikusten, nire baitan pizten diren bazter mirezgarriak, ikusten"*. ■■■



Ikuspegi ederra zuten treneko bidaiariek: errioren ezker aldean La Oriana fabrika eta Arratola baserria; erriogan, arrantzarako traineruak; eta, eskuin aldean, orduko Orioko txiki, errioren gainean bildu eta eder hura.

Dibertimendua eta kultura, baleatik baleara

Zaragueta Herri Eskolako komunitateak *Baleatik baleara* mahai-jokoa sortu du, eta haren nondik norakoak azaldu ditu, egitasmoa kaleratu berritan. "Kulturaren eta Orioko ondarearen eta herri nortasunaren arloan ikastetxean landutako edukiak" ditu oinarrian jokoak, Ruben Iglesias gurasoaren hitzetan. "Herritarren parte hartzearen garrantzia" azpimarratu dute proiektuaren gakoaren artean.

Testua: Mikel Eizagirre
Argazkiak: Zaragueta Herri Eskola

Herriko hainbat eragile eta norbanakok Orioko Curriculumuma sortu zutenetik, Zaragueta ikastetxea lanean aritu da herriko historia eta ondarea transmititzeko eta ikasgelan aplikatzeko. Hori borobiltzeko, mahai-joko bat egitea otu zitzaion, beste herri batzuetan tokian tokiko historia jasoz egin duten antzera. Hala, "Orioko kultura zein nortasuna bildu, eta modu pedagogikoan aurkeztea" izan da egitasmoaren ideia nagusia.

Bigarren oinarria, berriz, "herritarren parte hartzea" izan dela aipatu du Ruben Iglesias eskolako gurasoak. Profesionalei ordaindu eta proiektua haiek gauzatzea aukera bat izan arren, Zaragueta ikastetxean "auzolanaren alde" egin dute.

Hirugarrenetik, *Baleatik baleara* "euskal curriculumari ekarpena egiteko asmoz" jaio dela ere azaldu du Iglesiasek, hezkuntzaren inguruko eztabaidaren erdian. Oinarriok hartuta, ikasle, irakasle zein gurasoak ideiak ematen, maketatzen eta lanak antolatzen aritu dira. Irakasleek, zehazki, sustapen lana egin dute ikasgeletan.

Aitortza eta elkarlana

Herriko eragile zein pertsonen aipamena egiten du jokoak. Historikoak batzuk, garaikideak besteak, baina herriko pertsonaia esanguratsuak dira den-denak; emakumeen presentzia bermatuta,





BALEATIK BALEARA JOKOAREKIN EUSKAL CURRICULUMARI EKARPENEA EGITEA DA ASMOA


MAHAI-JOKOA SALGAI DAGO 15 EUROTAN ONTZAN, ZIPRISTINEN, THE PASSEN ETA ITURAINEN

betiere. Ainhoa Zumeta zuzendariaren aburuz, antzematen da "transmisio-haustura" bat badagoela herrian, hau da, etxean ahoz aho jasotzen ziren narratiba ugari "eteten" ari direla, alegia. Zentzu horretan, ikasleei "nondik gatozen eta nora goazen" kokatzeko balio diezaieke eskola egitasmo honek.

Jolasaren prestakuntza lanetan murgilduta, "ikasleengana iristeko moduz" hausnartu zuten iniziatibaren bueltan bildu zirenek. Zehazki, DBHko ikasleek landu dute gaia, haiek gazteagoei oparitzeko aurreikuspenarekin. Hala, gazteek balorazio positiboa egiten dute. Ander San Sebastian eta June Azkargorta ikasleek jolasa prestatzeko jarraitu zituzten urratsak azaldu dituzte. "Gizarteko irakasgaiari irteera bat egin genuen proiektuaren inguruko azalpena jasotzeko, eta ikasgelan bertan ekin genion lanari", kontatu du Azkargortak.

Proiektu globala bistatik ez galtzeko, ikastetxeak beharrezkotzat jo du "elkarlanean aritzea". Hala, ikasle zein irakasleak aritu dira pertsonaiak kokatzeko araketan, adibidez. "Guretzat garrantzitsuak diren herriko pertsonaiak hautatu genituen lehenbizi", azaldu du San Sebastianek. Horien inguruko informazioa biltzeaz beste ikasgela bateko ikasleak arduratu direla kontatu du, eta San Sebastianek zein bere kideek transkribatu egin zutela.

Lan horren emaitza da mahai-jokoaren laukietan azaltzen diren figuren liburuxkako deskribapena, esate baterako. Teknikoki, guraso batzuek jokoaren diseinu lanak bete dituzte. Ataza grafikoetarako, berriz, Eñaut Aiartzaguena komikigilearengana jo zuten. Marrazkilaria Zaraguetan izan zen, ikasleei bere teknika erakusteko. Gazteak oso pozik azaldu dira Aiartzaguenak mahai-



jokoan egindako lanarekin nahiz irakatsitakoekin. "Marrazketa eskola bat eman zigun, eta oso polita izan zen", dio San Sebastianek.

Oriaren ibilbidea

Mahai-jokoaren 62 laukietan lekuak eta "ehun soziala josi duten oriotarrak" bildu ditu Zaragueta ikastetxeak, Oria ibaiaren ibilbideari jarraiki. Salatxo Abesbatza, adibidez, Salatxo plazarekin; Kaxilda Garate, Etxeluze gaztetxearen aurreko Kaxilda plazarekin; Martzelo, adreilu fabrikarekin, eta abar.

Lanak amaituta, Zaraguetako ikasleek jada herrian barrena salgai ikusi dute beraiek sorturiko jolasa. "Ez genuen espero horrela geratuko zenik", dio Azkargortak harrিতuta. Zentzu horretan, "ikasleek eskolan egindako lanaren esangura ikustearen garrantzia" azpimarratu du Iglesiasek. Zehazki, 400 ale kaleratu dituzte oraingoz, 15 euroko salneurriarekin. "Helburua ez da dirua irabaztea", azpimarratu dute arduradunek.

Metodologia berriak

Aurrera begira, zentzoko heziketa ziklo osoak bestelako proiektuen bueltan elkartzea aurreikusten dute Zaragueta ikastetxean. Balorazioen atarian, "curriculum berriak bide horretatik jarraitzea eskatzen duela", ondorioztatu du Zumetak. Maila akademiko guztiekin batera ez bada ere, ikasleak "helburu amankomunetarako lanean jartzea" aurreikusten dute irakasgai desberdinetan, epe motzera begira. Zuzendariak gogorarazi duenez, adin arteko elkarlana "gaur gaurkoz lantzen ari diren filosofia da". ■■■

Imanol Alguacil mahai-joarekin, bera ere agertzen baita bertan

BODEGON
Sarasua

info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

URANGA
burdindegia
Opari, menaje eta erremintak
Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

SU KIA
TABERNA · JATETXEA
Eguneko menua
Asteburuetakoa
Oilaskoak eramateko
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Terraza ederra
(alboan umeentzako parkea)
Abaromendi 38, behea 1
ORIO · 943-89 21 29


Zaragueta IPI
HERRI ESKOLA 2-16
943-89 92 43
012137aa@hezkuntza.net



Orioko Herri Ikastola
ORIO GARA
Abeslari kalea, 8
943-83 47 04
Fax-a: 943-13 09 38
orio@ikastola.eus
www.oriokoikastola.eus




**ESKELA
ZERBITZUA**

karkara.eus webgunean eskela jarri nahi?

Jarri harremanetan:
688 85 96 82
karkara@karkara.eus
Eusko Gudari kalea, 26

ZINKU ERAIKUNTZAK
• Igeltserotza orokorra
• Etxebizitzan erreformak
• Teilatuak
• Sukalde, komunak, etb.
• Eraisketak
deitu eta eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Ander Zinkunegi
667 74 02 79


Zarautz
Hileta Zerbitzuak
1962. urtetik zure zerbitzura
24 ordu zure zerbitzura
Beilatokia · Lekualdatzeak · Eginbide guztien tramitazioa
Araba kalea 35 · ZARAUTZ
943-89 49 37
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus


Sinergia
fisioterapia eta ikerkuntza
Ibai ondo, 1 behea · ORIO
943-13 05 77 · 685 71 85 95
sinergiafisioterapia.com ·  

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldi-rako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupeazioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresioa (GAH), REDCORD.

Udan edertasun ereduari muzin



OIHANE AGOTE: PSIKOLOGOA

Ekainaren 8an, *Gorputz-irudia eta Autoestimua* tailerra eskaini nuen Orion, Libe Garmendiaren nutrizio aholkularitza zentroan. Ni osasunaren psikologia arloan aditua naiz, eta Garmendiarekin elkarlanean espazio bat sortu genuen gorputz irudiaren inguruan sortzen diren kezken iturburuaztertze eta horiei aurre egiteko estrategiak lantzeko.

Lehenik eta behin, dietaren kulturak dakarren argaltasunaren inguruko sinesmen sistema izan genuen hizpide, eta ikusi genuen gizartean ohikoa dela argaltasuna osasunarekin lotzea eta gizentasuna, berriz, osasun ezarekin. Hori dela eta, argaltasuna balio gisa sustatzen da, batez ere emakumeen artean, eta osasuna, kirola eta elikadura zurruntasunez ulertzen dira. Tailerrean bildu zirenek beren esperientziak partekatu zituzten, eta hainbat gai atera ziren eztabaidara, tartean, lodifobia. Hitzorduan parte hartu zuten emakumeen artean argi ikusi zen gorputz perfektuaren ereduak sufrimendua eragiten duela emakumeen artean, batez ere uda sasoiaren, eta sufrimendu horrek askotan mugak jartzen dizkigula bizitzaz gozatzeko.

Sare sozialek ere min handia egiten dute ildo horretan.

Konparaketak beti egin izan dira, baina gaur egun sare sozialek eskaintzen dizkiguten filtroekin, ez gara bakarrik konparatzen lagun edo bizilagunarekin, konparatzen gara mundu guztiarekin, baita gure bertsio eder itxuraldatu batekin ere. Ohitzen gara filtroak erabiltzera hobeto ikusten garelako, baina epe luzera gero eta gutxiago onartzen dugu geure burua. Horregatik, garrantzitsua da kontzientzia hartzea eta argazkietan filtrorik ez erabiltzea; baita zer jarraitzen dugun aztertzea ere; askotan, aurkezten digutena ez delako benetakoa izaten.

Gorputz irudiaren inguruan sortzen diren kezkei aurre egiteko hainbat estrategia landu genituen lantegian. Alde batetik, *fat talk* deiturikoa saihesteko beharra nabarmendu genuen. *Fat talk* deitzen zaie loditasunaren inguruko komentarioei, jarrerari edo kritikei, baita argaltasunaren eta

**GURE GORPUTZAREN
INGURUKO SINESMEN
ETA JOKABIDE
GAIZTOAK SAIHESTU
BEHAR DITUGU**

edertasunaren bueltako aipamenei ere. Etengabe egiten ditugu, konturatu gabe, geure buruaz edo kalean ikusten ditugun gainontzekoez. Horregatik, garrantzitsua da horiek moztea eta itxura fisikoak garrantzia galtzea gure elkarrizketetan; baita gure ingurukoak itxura fisikoarekin loturarik ez duten beste ezaugarriengatik baloratzea ere.

Bestetik, gorputz neutraltasunaren mugimendua ere aipatu genuen. Indarra hartzen ari den mugimendua da eta aldarrikatzen du ez dugula gure gorputza edertasun irizpideekin neurtu behar, eredu zurrunak eta ezinezkoak ezarri dizkigutelako. Arreta jarri behar dugu, ordea, gure gorputzak eskaintzen dizkigun funtzioetan eta gaitasunetan, eskaintzen digulako bizimodu zorionsua izateko aukera.

Azken batean, gure gorputzaren inguruko sinesmen eta jokabide gaiztoak saihestu behar ditugu, eta zaindu egin behar dugu, gure gorputza gure arerioa ez delako. Aurreiritziak alde batera utziko ditugu eta nahi duguna egingo dugu. Agian, nire gorputza ez da izango nahi bezalakoa, baina hondartzara joango naiz zentzumenek ematen didaten plazeraz, eguraldi ederraz eta itsasoaz gozatzera, nik eta nire gorputzak merezi dugulako. ■





DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak domino-zati honek zentzua izan dezan.



Elementu hauetatik guztietatik bat zortzi aldiz ageri da eta beste elementu bat soilik behin. Zein dira? Eta zenbat lanperna daude?

Itsaski Festa



HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

A	B	C	D
E	F	G	H
I	J	K	L
M	N	O	P
Q	R	S	T
U	V	W	X
Y	Z	.	-
,	!	?	:


Hemen buru bakoitzak zorri bana du eta hizketan ari dira, baina zer diote? Erabili hizki-marrazki alfabetoa eta erraz ulertuko duzu.

ZORRI HIZTUNAK

Itzala Hondarretan gazteluak egitea bai dibertigarria! Zein da Markelen itzal zuzena?



BadonK 13 Aurki itzazu bi itsasontzien artean dauden 13 aldeak. Bestalde, itsaspea margotu beharko zenuke, eta marmokak eta arrain batzuk ere marraztu, horrela triste samar dago eta.



Soluzioak ikusteko: www.plazanbazan.eus/

IRAGARKI SAILKATUAK

ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabanentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

Pisua partekatzeko prest nago, alokairu kontratua-ekin. Seriotasuna eskatzen dut. Te. 666 62 22 51.

LAN BILA

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Telefonoa: 627 61 37 83.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketa lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeko lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasanari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest

Iragarkietarako bokoak. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com.
Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanda. Tel. 643 85 78 54.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketarako edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Tel. 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan eta baita prestutasun osoa ere. Tel. 695 37 82 60 Estrella Reyes.

Emakume arduratsua naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak egiteko prest nago, baita adinekoak zaintzeko ere, egunez zein gauzez, barneko zein kanpoko langile bezala. Jatetxe batean ere lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia dut eta horretarako beharrezko titulua dut. Tel. 666 62 22 51.

SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguruia ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

Zerrama, apotea, txerrikumeak eta txekorrak salgai Usurbilgo baserri batean. Tel. 607 66 86 03. Joxe Krux.

BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilargia
1	06:43 eta 18:54	00:37 eta 12:40	☉
2	07:18 eta 19:29	01:12 eta 13:15	☉
3	07:55 eta 20:08	01:48 eta 13:52	☉
4	08:34 eta 20:49	02:26 eta 14:32	☉
5	09:19 eta 21:35	03:07 eta 15:17	☉
6	10:10 eta 22:28	03:54 eta 16:08	☉
7	11:08 eta 23:27	04:48 eta 17:07	☉
8	12:12	05:49 eta 18:12	☉
9	00:34 eta 13:17	06:53 eta 19:19	☉
10	01:43 eta 14:19	07:57 eta 20:23	☉
11	02:48 eta 15:17	08:57 eta 21:24	☉
12	03:48 eta 16:11	09:53 eta 22:21	☉
13	04:43 eta 17:03	10:45 eta 23:15	☉
14	05:36 eta 17:54	11:35	☉
15	06:27 eta 18:44	00:07 eta 12:24	☉
16	07:16 eta 19:34	00:57 eta 13:13	☉
17	08:05 eta 20:23	01:46 eta 14:01	☉
18	08:53 eta 21:13	02:34 eta 14:50	☉
19	09:42 eta 22:05	03:23 eta 15:41	☉
20	10:36 eta 23:00	04:14 eta 16:36	☉
21	11:36	05:09 eta 17:38	☉
22	00:02 eta 12:44	06:11 eta 18:47	☉
23	01:12 eta 13:52	07:18 eta 19:58	☉
24	02:20 eta 14:52	08:22 eta 21:00	☉
25	03:18 eta 15:41	09:16 eta 21:52	☉
26	04:05 eta 16:22	10:02 eta 22:35	☉
27	04:44 eta 16:58	10:41 eta 23:13	☉
28	05:20 eta 17:31	11:16 eta 23:47	☉
29	05:53 eta 18:04	11:50	☉
30	06:25 eta 18:36	00:20 eta 12:22	☉
31	06:58 eta 19:10	00:52 eta 12:55	☉

FARMAZIAK-UZTAILA

ZARAUTZ

5, 11 eta 25.	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
14, 16, 17, 22 eta 28.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
6, 12, 20 eta 26.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
23, 24 eta 29.	GAMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
9, 10, 15, 21 eta 27.	IRIARTE: Zinkunegi, Pilarxo Enea / 943-13 29 70
4, 30 eta 31.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
8 eta 18.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
1, 7, 13 eta 19.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83
2 eta 3.	ZULAIKA: Bizkaia kalea, 41 / 943-13 39 94

AGENDA

AIA-SANTIOKO JAIAK

UZTAILAK 22, OSTIRALA

Erromeria: *Fan & Go, 23:00etan.*

Oilasko biltzea, *03:00etan.*

UZTAILAK 23, LARUNBATA

Mus Txapelketa.

Frontoian, 16:00etan.

Bertsolariak, *22:30ean.*

Diskojaia: *Abiba, 00:00etan.*

DJ Xanta, 04:00etan.

UZTAILAK 24, IGANDEA

Ume jolasak.

Frontoian, 17:00etan.

Kontzertua: *Intzak hik, 23:00etan.*

Kontzertua: *Skasti, 00:30ean.*

DJ Ibon, 02:00etan.

UZTAILAK 25, ASTELEHENA

Hamaiketakoa.

Portu Erretegian, 11:00etan.

Herri Kirolak.

Frontoian, hamaiketakoaren ostean.

Erromeria: *trikitilariekin, 18:00etan.*

UZTAILAK 30, LARUNBATA

Oilasko biltzeko afaria.

Portu Erretegian, 21:00etan.

ORIO

UZTAILAK 15-17, OSTIRALETIK IGANDERA

Bisiguaren festa.

UZTAILAK 16, LARUNBATA

Orioko Kanpina X.bandera.

Hondartzan, 18:15ean.

UZTAILAK 17, IGANDEA

Orioko Kanpina IV.bandera.

Errion, 19:00etan.

UZTAILAK 23, LARUNBATA

Kontzertua: *Bitartean taldea.*

Herriko plazan, 20:00etan.

UZTAILAK 30, LARUNBATA

Kontzertuak: *Revolutionary Brothers eta Hereje Fighters taldeak.*

Hondartzan, 17:00etan.

ABUZTU OSOAN

Gure zirkua, *Mendibeltz parkean.*

ABUZTUAK 21

Stock azoka.

Herriko plazan.



Usurbil Autoak
30 URTE ZERBITZUAI

**TXAPA - PINTURA -
MEKANIKA**

DESINFEKZIO GUNEA

**ESKATU AURREKONUA
KONPROMEZURIK GABE**

Aitzearra Kalea, 24, 20170 · Usurbil
943-36 10 79
usurbilautoak@gmail.com

Xsarkitektura
herrikobarra, 11 behea · ZARAUTZ · 943-13 43 58

www.xsarkitektura.com

eraikuntza zerbitzuak

eraikinen mantenua

errehabilitazioak

proiektuak

txostenak

ITE-ak

obrak



Puntua jarrita

Bertsolaria: Marian Lazkano.

Doinua: Bertso bat botaiozu zeure buruari....

1

Bertsorik sartzen al zain puntada tartean.

Kontuatzan-naun askotan puntada galtzean.

Txaloak eiten-dizkiñau orratzan sartzean.

Umorea jartzen zionau guztion artean.

2

Burua behintzat beti dantzan ta lanean.

Dantza egitekotan hobeto kalean.

Denbora gehiegi ez-diñau pasatzen etxean.

Etzakiñat ote gauden onenan tartean.

3

OSTARGIren lan ona azpimarratu nahi.

Hogeita hamar urtez astindu hainbat gai.

Beste urte batzutan jarraituko-ñau bai.


Puntadak eta bertsua uztartutzen alai.

Hurrengo bertsolaria:

Eli Bello.

Puntua: Pinturakin jolasen Orioko umeak

Hasi Bertsoan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Marian Lazkanori jarri dio puntua Rosi Lazkanok: "Bertsorik sartzen al zain puntada tartean". Hurrengoari ere jarri dio puntua.



NAIARA LARRAÑAGA

IZAN KA IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

KARKARA

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

